
INFORMAZIO KORPORATIBOA

MEMORIA 2017

2018ko martxo

AURKIBIDEA

SARRERA	3
TRAMITATUTAKO ESPEDIENTEAK	4
Banaketa, espediente-motaren arabera	4
BIZTANLEEN ERROLDA	5
Banaketa, mugimendu-motaren arabera	5
DOKUMENTUEN SARRERA ERREGISTROA	6
Banaketa, hartzailearen arabera	7
Barne Erregistroaren banaketa, sarbidearen arabera	7
Banaketa, barne-hartzailearen arabera	8
Banaketa, hilabeteen arabera	9
EDIKTU TAULA	10
Banaketa, iragarlearen arabera	10
BARNEKO MEZULARITZA ZERBITZUA	12
POSTA	12
Banaketa, hilabeteen arabera	12
Banaketa, tipologiaren arabera	13
Banaketa, tipologiaren eta hilabeteen arabera	13
KANPOKO MEZULARITZA	14
Banaketa, hilabeteen arabera	15
Banaketa, helmugaren arabera	15
JAKINARAZPENAK “etxebizitzan”	16
Banaketa, hilabeteen arabera	16
ARETO NAGUSIAN LAGUNTZA EMATEA	16
EZKONTZAK	16
Banaketa, hilabeteen arabera	17

SARRERA

2017a aldaketa urtea izan da Informazio Korporatiboko Zerbitzurako; antolaketa mailan aldaketa garrantzitsuak egin ditugu eta kudeaketa elektronikoranzko bidean aurrera egin dugu.

2016/07/27ko Tokiko Gobernu Batzordean onartu zen Udal organigrama berrian erabaki zen, hasteko Erregistroko eta Estatistikako unitateak bateratzea eta, bigarrenik, Artxibategia Informazio Korporatiboari atxikitzea.

Erregistroko administrari 1 eta Estatistikako eta Hirugarrenetako 2 administrari zituen funtzionamendu berezitu batetik polibalentzian diharduten 3 administrariko unitate bat izatera pasa gara; horretarako langile guztien egokitzapen eta prestakuntza prozesu bat behar izan da, zerbitzuari dagozkion zeregin eta funtzio guztiak bete ahal izateko behar adinako gaitasuna lortze aldera. Prozesu hori 2017an zehar egin da eta 2018an jarraitu egingo du, funtzionatzeko eredu hau finkatzeko.

Gainera, Artxiboa atxikitzeak bestelako lan batzuk hartu beharra ekarri du, eta horiek ezartzea, espedienteen Kontrol eta kudeaketaren aplikazioaren bidez tramitatzeko.

Landu dugun beste alorra, hasieran aipatu dugun bezala, kudeaketa elektronikoaren ezarpena izan da. Gaur egun gure zerbitzura heltzen diren eskaera guztiak digitalizatu egiten dira Erregistroan eta aurrera goaz oso-osorik digitala den gestioan; eta horretarako, trebatzen jarraitu behar dugu eta lan egiteko modu berri horretara egokitzen.

Datozen orrialdeotan zerbitzuaren jarduerari buruzko datuak azpimarragarrienak jaso ditugu.

TRAMITATUTAKO ESPEDIENTEAK

Atal honetan, urtean zehar bideratu diren espedienteen buruzko datuak jasotzen dira, alderdi kuantitatikora mugatuz. Batzuen eta besteen konplexutasuna orotarikoa da, baina ez dugu horien azterketa kualitatiborik egingo.

9.816 espediente dira, horien artean Biztanleen Erroldarekin lotutako 5.785 espedienteak nabarmentzen dira: Alta emateko 2.260 espediente eta Etxebizitza aldaketako 3.022 espediente.

Banaketa, espediente-motaren arabera

Alta Biztanleen Erroldan	2.620
Alta Errolda sozialean	55
Bizileku aldaketak	3.525
Bidegabeko inklusioagatiko bajak	12
Inskripzioa iraungitzeagatiko bajak	4
Errolda eta lurralde ziurtagiri bereziak	372
Beste Administrazio Publiko batzuek eskatutako errolda-informazioa	255
BUERekiko hainbat eskaera	240
Erregistroarekiko hainbat eskaera	7
Itsasontzien erregistroa	1
Izatezko bikoteen erregistroa	0
Ezkontzak	57
Biztanleen Erroldari dagozkion komunikazioak	2.658
Serapio Múgica XV. Beka	8
Administrazioko kontratazioa	2
GUZTIRA	9.816

BIZTANLEEN ERROLDA

Biztanleen Erroldaren eguneratze etengabeak **14.131** mugimendu eragin ditu, guztian Estatistikako Institutu Nazionalarekin egiaztatuta, hileroko fitxategi trukearen bitartez.


Banaketa, mugimendu-motaren arabera

Jaiotzagatiko altak	449
Ez-egitezko altak	204
Bizileku aldaketagatiko altak	3.022
Heriotzagatiko bajak	622
Bikoizteagatiko bajak	4
Bidegabeko inklusioagatiko bajak	873
Bizileku aldaketagatiko bajak	2.057
Inskripzioa iraungitzeagatiko bajak	68
Datu pertsonalen aldaketa	2.675
Lurralde datuen aldaketa	15
Bizileku aldaketagatiko aldaketa	3.525
Izen-ematea berritzeagatiko aldaketa	385
Bizilekua baieztatzeagatiko aldaketa	232
GUZTIRA	14.131

Datu horiek ikusirik, udalerrri barruko mugikortasuna azpimarratu behar dugu, bizileku aldaketei dagokiena baita zifrarik altuena (3.525), gairitu egiten baitu beste udalerrri batzuetatik datozen Alde zahar kopurua (3.022).

Estatistikako Institutu Nazionalarekin egiten den fitxategi aldaketaren ondorioz zehazten da Biztanleria Kopuru Ofiziala, urte amaieran ¹, Errege Dekretuz onartzen dena; 2017ko urtarrilaren 1ean, Irungo biztanleria **61.855 biztanlekoa zen**.

¹ Real Decreto 1039/2017, de 15 de diciembre, por el que se declaran oficiales las cifras de población resultantes de la revisión del Padrón municipal referidas al 1 de enero de 2017. (B.O.E. 29/12/2017)



DOKUMENTUEN SARRERA ERREGISTROA


2017an **38.302** idazpen egin dira agirien Sarrera erregistroan. Jarraian azaltzen dira daturik esanguratsuenak.

Banaketa, hartzailearen arabera

Erregistroan Udalera zein beste herri administrazio batzuetara zuzendutako idazkiak sartzen dira. 1997.urtetik hona, hitzarmenak dauzkagu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Estatuko Administrazio Orokorrarekin. HAZen administrazio horietarako edozeinetarako aurkez daitezke idazkiak, lege-balio guztia dutenak.

Ezaugarri horiek kontuan hartuta, idazkiak bi sail handitan sailkatzen dira: jasotzailea Udala dutenak, **32.505**, eta kanpoko jasotzailearen bat dutenak, 2017an **5.797**, guztiazkoaren %15.

Beste administrazio batzuetara zuzendutako **5.797** eskaerak honela banatzen dira: **4.427** Eusko Jaurlaritzara zuzenduak; **1.032** Gipuzkoako Foru Aldundira; eta **324** Estatuko Administrazio Orokorrera.




Barne Erregistroaren banaketa, sarbidearen arabera

Udalera bideratzen diren idazkiek eta eskaerek lau sarbide desberdin dituzte:

- HAZ Erregistroa: 27.087
- Erregistro Orokorra: 3.504
- Erregistro telematikoa (Web pertsonala): 6.837

- Beste herri administrazio batzuetako erregistroak: 874²



Esan behar da Erregistro telematikoa gero eta gehiago erabiltzen dela eskaeren sarbide bezala; 2017an, esaterako, 2. sarbidea izan da, HAZen ondoren.

Erregistro Orokorren jasotzen eta baliozkotzen dira Erregistro Telematikoko sarrerak (**6.837**), eta han erregistratzen dira zuzenean Udaletxera postaz risten diren idazkiak (**3.504**) eta beste herri administrazio batzuetatik iristen direnak (**874**). 2017an guztira **10.341** eskaera erregistratu ditugu.

Sartzeko lehengo bidea HAZ da, baina Erregistro Orokorra da erregistro guztiak gainbegiratzeko ardura duena, zuzenak direla egiaztatzeko eta horiek dagozkien udal administrazio-unitateetara bana daitezen prestatzeko; horren arabera, 2017an **32.505** idazki kudeatu ditugu.

Banaketa, barne-hartzaileen arabera

Banaketa barneko hartzaileen arabera aztertuta, udal arlo hartzaileetara bideratutako idazkiak kontabilizatu ditugu eta ikusi dugu Gizarte Ongizate dela eskaera kopuru handiena jasotzen duena, guztizkoaren %22,5.


Hona hemen banaketa zehatza, arlo eta administrazio-unitateen arabera:

² Los escritos que los ciudadanos presentan en otras administraciones públicas llegan al Registro General y allí les damos entrada en el Ayuntamiento.

HARTZAILEA	Idazki kop.	%
- Alkatetza	112	0,3
- Artxiboa	25	0,1
- Gizarte Ongizatea	7.324	22,5
- Kontsumoa	401	1,2
- Kontratazioa	355	1,1
- Kultura eta Kirolak	1.573	4,8
- Hezkuntza eta Gazteria	3.467	10,7
- Estatistika eta Hirugarrenak	2.201	6,8
- Euskara	1.504	4,6
- Ogasuna eta Ondarea	4.319	13,3
- Kontu-hartzailtza Nagusia	147	0,5
- Mugikortasuna, Bide Publikoa eta Obrak	1.656	5,1
- Antolamendua, Informatika eta Erosketak	194	0,6
- Parte-hartzea eta Gardentasuna	123	0,4
- Langilegoa, Prebentzioa eta Garbiketa	1.064	3,3
- Udaltzaingoa eta Bizikidetzak	3.196	9,8
- Erregistroa	79	0,2
- Ama Xantalen Egoitza	26	0,1
- HAZ	290	0,9
- Idazkaritza eta Zerbitzu Juridikoak	145	0,4
- Diruzaintza eta Diru-bilketa	363	1,1
- Hirigintza eta Garapen Jasangarria	3.941	12,1

Banaketa, hilabeten arabera

Irailean erregistratu dugu idazki kopururik handiena, 4.111, eta abuztuan txikiena, 1.937.




EDIKTU TAULA

Udaleko ediktu taula Informazio Korporatiboko zerbitzuaren ardura da eta, horren ondorioz, administrazio-unitateek eta beste herri administrazio batzuek eskatuta argitaratzen ditugu bertan iragarkiak. Geroago, eskatzaileari itzultzen dizkiogu, iragarkia jendaurrean egon den denbora egiaztatuz.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea indarrean sartzearen ondorioz, beste administrazio batzuek bidaltzen duten ediktu-kopurua jaitsi egin da, gaur egun derrigorrezkoa baita Ediktu Taula Bakarrean (ETB) argitaratzea. eta, nolana ere, osagarri bezala hartzen da taulan argitaratzea.

Banaketa, iragarlearen arabera

2017an 237 udal ediktu kudeatu ditugu eta 76 beste administrazio batzuetakoak, hurrenez hurren, guztizkoaren %76 eta %24.



Udal ediktuak honela daude banatuta arloaren arabera: Idazkaritza, Zerbitzu Juridikoak eta Kontratazioa da iragarki gehien argitaratu duen arloa, 66; eta hurrena, Langilego Bulegoa, 56rekin.

Udal arloa	Iragarki kop.
Gizarte Ongizatea, Hezkuntza eta Gazteria	24
Kultura eta Kirolak	23
Euskara	2
Ogasuna, Sustapen Ekonomikoa eta Plan Estrategikoa	11
Mugikortasuna, Bide Publikoa eta Obrak	1
Pertsonala	56
Udaltzaingoa eta Bizikidetza	7
Idazkaritza, Zerb. Juridikoak eta Kontratazioa	66
Informazioaren Gizartea eta Herritarren Partaidetza	21
Hirigintza eta Ingurumena	26

Kanpoko iragarleen artean, ikusi dugu Uraren Euskal Agentzia (32 iragarki) eta beste udal batzuk (22) direla udaleko ediktu taularen kanpoko erabiltzaile nagusiak.

Iragarlea	Iragarki kop.
Udalak	22
Aldundiak	10
Uraren Euskal Agentzia	32
Irunvi	3
Eusko Jaurlaritza	8
Administrazio Zentrala	1

BARNEKO MEZULARITZA ZERBITZUA

Erregistro laguntzaileak / jakinarazleak dira dokumentazioa udal-bulegoetan banatzen dutenak. Egunero joaten dira udal-bulego guztietara eta, beharrezkoa denean, erakunde autonomoetara, hiriko beste erakunde batzuetara, banketxetara, eta abar.

Ez daukagu eramaten den dokumentazioari buruzko datu estatistikorik, baina esan dezakegu lan hori funtsezkoa dela udal jardunerako.

POSTA


Erregistro eta Estatistika Unitatean organizazio osoko postaz arduratzen gara. Erregistro laguntzaileek / jakinarazleek egunero jasotzen dute sartzen den posta eta kudeatzen dute ateratzen dena (sailkapena, albaranak egitea eta Posta-bulegora eramatea).

Ez daukagu sartzen den postari buruzko daturik, ez da kontabilizatzen eta, banatu egiten da soilik, gehiena Erregistrora, sarrera emateko eta, gainerakoa, zuzenean administrazio-unitateetara.

Jarraian ematen ditugun datuok Udalak egiten dituen posta bidezko bidalketei dagozkie: 2017an **81.387** kontabilizatu ditugu.


Banaketa, hilabeten arabera

Bidalketa kopururik handieneko hilabeteak, martxoa eta maiatza dira, udal zergen ordainagiriak bidaltzen direnean.




Banaketa, tipologiaren arabera

Bidalketarako modurik erabiliena posta arrunta (%53) eta administrazio jakinarazpenak dira (%40).



Banaketa, tipologiaren eta hilabeteen arabera




KANPOKO MEZULARITZA


Mezularitza da Erregistro eta Estatistika unitatean kudeatzen dugun beste zerbitzu bat; astean bitan prestatzen ditugu Donostiarako bidalketak eta, udal arloen eskaeren arabera, beste leku batzuetarako zerbitzu bereziak: Horiek guztiak horretarako kontratatua dagoen enpresa batek egiten ditu.

Banaketa, hilabeteen arabera

Maiztasun finko bat duen zerbitzua dela kontuan hartuta, ez dago alde handirik hil batetik bestera.




Banaketa, helmugaren arabera



JAKINARAZPENAK “etxebizitzan”

Jakinarazleek **1.593** jakinarazpen eraman dituzte interesdunen etxebizitzetara; Izeregin honen xedea da fede-ematea Udalak jaulkitako dokumentu bat entregatua izan dela.

Banaketa, hilabeteen arabera



ARETO NAGUSIAN LAGUNTZA EMATEA

Erregistro laguntzaileak / jakinarazleak Osoko Bilkuretara, protokolo ekitaldietara, bileretara eta ezkontzetara joaten dira eta haiek arduratzen dira Areto Nagusia prestatzeaz, megafoniaz –Osoko Bilkuretan izan ezik– eta behr den material guztia prestatzeaz. 2017an **50** saiotara joan dira, horietarik **13** Osoko Bilkura, **22** kultur, protokolo eta abarretako ekitaldi, eta **15** ezkontza ekitaldi izan dira.

EZKONTZAK

Aparteko atala merezi du Udaletxean egiten diren ezkontza zibilen gaiak, Erregistro eta Estatistikako Unitatea delako administrazio-kudeaketa egiteko arduraduna (eskaerak jasotzea, erreserbak, aktak idaztea,...) eta ekitaldian laguntza ematekoa (ospatzaileari laguntzea, megafonia, musika). Horrek esan nahi du ezkontzaren bat egiten denero administrari bat eta erregistro-laguntzaile bat han izaten direla, areto nagusian.

2017an, **36** ospakizun gauzatu dira 15 egunetan: **12** larunbat, **2** ostiral eta ostegun **1**.

Banaketa, hilabeteen arabera

